

# 3

## Euskara, galiziera eta irlanderaren hiztun berrien hizkuntza-identitatea

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien IX. Edizioko  
**HIRUGARREN SARIA (2016)**

**Irati Lizeaga Elizalde**

*Euskal Ikasketak Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetako saila*

*UPV/EHU eta UEUko ikaslea*

*lizeagairati@gmail.com*

Sarrera-data 2016-09-30 / Onartze-data 2016-12-02

**Laburpena.** Hiztun berriek osatzen duten komunitatearen garrantzia dela eta, lan honetan euskara, galiziera eta irlandera ikasi duten hiztunak alderatu dira euren hizkuntza-identitatea zertan ezberdintzen den eta zertan berdina den jakiteko. Horretarako, euskara, irlandera eta galiziera ikasi dituzten hiztunak sailkatzeko hiru profil bereizi dira hizkuntza-identitatearen arabera: 'ez naiz hiztun zaharra', 'hiztun berria naiz' eta 'Ez hiztun berri, ez zahar, hiztuna besterik gabe'. • **Hitz gakoak:** *Hizkuntza-identitate, hiztun, hiztun berri, hiztun zahar, hizkuntza gutxitu.*

**Abstract.** In view of the importance of the community made up of new speakers, this piece of work compares the speakers who have learnt Basque, Galician and Irish to find out in what way their linguistic identities differ and are the same. So three profiles in terms of linguistic identity have been distinguished for the purpose of classifying the speakers who have learnt Basque, Irish and Galician: 'I am not a native speaker', 'I am a non-native speaker' and 'Neither a non-native or a native speaker, just a speaker'. • **Key words:** *Linguistic identity, speaker, non-native speaker, native speaker, little-used language.*

## 1. HELBURUAK

**I** Lan honetan, euskararen, galizieraren eta irlanderaren hiztun berrien identitatea konparatuko da, hiztun horien auto pertzeptzioan zerk eragiten duen ikusi nahi baita, hiru kasuen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak bilatuta, amaieran auto-pertzeptzio horretan eragiten duten faktoreen inguruko hausnarketa bat eginez.

Beraz, hizkuntza gutxituak ikasi dituzten hiztunak dira ardatz eta aztergai. Izan ere, hizkuntzen biziraupenerako, eta are gehiago hizkuntza gutxituen biziraupenerako, berebiziko garrantzia duen talde bat osatzen dute hiztun berriek.

Euskararen kasuan, adibidez, hiztun kopurua handitzen eta erabilera-esparrua zabaltzen ari bada ere, euskara oso urrun dago egoera normalizatu batetik, maila askotan ahula baita oso. Esaterako, EAEko biztanleriaren %50,6k ez du euskaraz hitz egiten (Eusko Jaurlaritza, 2012 apud Ortega eta beste, 2013). Euskararen ahuleziaren beste seinale bat litzateke erabilera ez igotzea ezagutzaren proportzioan (Soziolinguistika Klusterra, 2012 apud Ortega eta beste, 2013).

Galizierari dagokionez, adibidez, 1975 arte ez da hiztun berririk egon, eta ondorioz, hizkuntzaren biziraupena landa-inguruetara mugatu da, hiri inguruetatik kanpo (O'Rourke & Ramallo, 2010).

Irlanderari helduz, datozen ataletan azalduko den bezala, gehiago dira irlandera irakasteko eskolak *Ghaeltacht*-etatik kanpo, *Ghaeltacht*-etan baino, eta beraz, berdin hezkuntza bidezko 'hiztun berriekin'. (Central Statistics Office, 2013).

Hau ikusirik, garrantzitsua da erkatutako hiru hizkuntza gutxituen informazio soziolinguistikoari ekin baino lehen, hizkuntza gutxituen eta 'hiztun berrien' gainean aritzea.

## 2. HIZKUNTZA GUTXITUAK

**I** Lanean jorratutako gaia ondo ulertzeko, garrantzitsua da hiztun berrien inguruan zer edo zer jakitea. Hauek beste modu batzuetara ere deituak izan dira, "minoritarioak, eskualdekoak (erregionalak), "gutxiagoerabiliak" (beste batzuk baino), eremu urrikoak" (Zendoia, 2015).

Aurrerago ikusiko den bezala, *hiztun berri* terminoarekin gertatzen denaren antzera, ez da erraza hizkuntza gutxituen definizio bat eta bakarra ematea:

---

***Lan honetan, euskararen, galizieraren eta irlanderaren hiztun berrien identitatea konparatuko da, hiztun horien auto pertzeptzioan zerk eragiten duen ikusi nahi baita.***

***Beraz, hizkuntza gutxituak ikasi dituzten hiztunak dira ardatz eta aztergai.***

---

**UNESCOK  
hizkuntza  
gutxituez  
dioenaren  
arabera, oro har,  
estatuen babesik  
jasotzen ez duten  
(edo oso gutxi  
jasotzen duten)  
hizkuntzak dira.**

**Batzuetan,  
ofizialki  
onartuak  
badaude ere,  
gizarte mailan  
baztertuak dira.**

UNESCOK hizkuntza gutxituez dioenaren arabera, oro har, estatuen babesik jasotzen ez duten (edo oso gutxi jasotzen duten) hizkuntzak dira. Hauek ez dira ofizialak estatuan, estatus hori beste hizkuntza batek baitu. Batzuetan, ofizialki onartuak badaude ere, gizarte mailan baztertuak dira. Besteetan, estatus hori berria izateagatik, oraindik ere hizkuntza gutxituak izaten jarraitzen dute. Azkenik, hizkuntzaren ofizialtasuna bere lurraldearen eremu batera soilik mugatzen duten hizkuntza gutxituak ditugu. Hiru sailkapen hauetako hizkuntzak, batez ere, Europa mendebaldean (galiziera, irlandera, euskara, bretoaia, frisia, katalanera, okzitaniera...) ekialdean eta erdialdean (ijitoera, ludera, jakatiera, istriera, ingriera...) kokatzen dira.

Europako hizkuntz aniztasuna oso urria da gainerako kontinenteetan gertatzen denarekin alderatuz, ordea. Munduan 3.500-4.000 hizkuntza inguru bizi dira, gehienak Asian, Afrikan eta Amerikan. Ethnologue-k 6.700 hizkuntza eta 39.000 dialekto aipatzen ditu, baina horietako askotako hiztun kopurua ehun pertsona baino gutxiagokoa da, eta ondorioz, desagertzeko zorian daude. Honen arabera, bizirik dirauten hizkuntzen %32a Asian kokatzen da, %30a Afrikan, %19a Ozeano Barean, %15a Ameriketara eta soilik %3a Europan. (Zendoia, 2015).

Hizkuntza gutxituen izaerari begiratuz, boterea izan da askotan aipatu den hitza: "Halaber, gizartearen antolaketarekin edo irizpide soziopolitikoekin zerikusia duten alderdiak ere hizkuntza gutxituen definizioan integratu behar dira, hizkuntzaren estatusa, bazterketa, balioa galtzea, gutxiagotasuna, menderakuntza, dominazioa eta boterea. Halaber, boterea erabiltzeko aukera, talde kontzientzia, tentsioa, erresistentzia eta gatazka. Parametro hauetan denetan kokatu behar da hizkuntza gutxituen definizioa" (Manterola & Berasategi, 2011: 22).

Munduan sei mila bat hizkuntza (hamaika mila, keinu-hizkuntzak barne) hitz egiten direla kontuan hartuz, beraz, esanguratsua da hizkuntza aniztasun horren galtzeko arriskua, sei mila hizkuntzetatik %95 hizkuntza gutxituak baitira, eta ondorioz, hizkuntza handiagoen mende eta ukipen-egoeran bizi dira (Manterola & Berasategi, 2011).

Testuinguru honetan, ez da harritzekoa hizkuntza heriotza gertatzea. Gehiago esanda, bi astetik behin hizkuntza bat hiltzen da edo hiltzeko arriskuan dago (Crystal, 2000 apud Hornsby, 2015).

Hizkuntza hauen guztien artean, gainera, %33 isolatuak dira, hots, ahaiderek gabeko hizkuntzak, beren hizkuntza familiako kide bakarra direnak, erotara, 350 bat familia independente osatuz (Campbell, 2011).

Hizkuntza aniztasuna galtzeko arriskuaren aurrean, hizkuntza gutxituek beren biziraupena eta hizkuntza aniztasuna bermatu beharrean daude, eta normalean, hezkuntza da honetarako erabilitako erakundea. Zehatzago, *murgilketa programak* erabiltzen dira, hots, ikasleak bigarren hizkuntza dutenetan eskolatzen dituzten programak, ikaslearen etxeko hizkuntza babestu eta balioetsiz, helburutzat etxekoa zein eskolako hizkuntzak, biak, ikastea baitute.

Programa hauei esker, aurrerago azalduko den bezala, hizkuntza gutxituen kasuan ere emaitza positiboak lor daitezkeela frogatu da, Euskal Herria kasu. Hala ere, hizkuntza gutxituaren komunitatearentzat erronka handia da murgilketa bezalako eredu bat jartzea, lan handia eta azpiegitura asko baititu atzean, hala nola, irakasleen hizkuntza-prestakuntza, hezkuntza elebidunerako prestakuntza edota hizkuntza gutxituan irakasteko material didaktikoen sorkuntza, hauek ez baitira egun batetik bestera lortzen diren erronkak. (Manterola & Berasategi, 2011).

Murgiltze programen bitartez edo beste bitartekoen bidez bada ere, hiztun berriak egotea garrantzitsua da oso hizkuntzen biziraupenean, eta are gehiago, hizkuntza gutxituenean.

### 3. HIZTUN BERRIAK

**I** Denboran zehar erabat aldatu da “hitz egitea” eta hizkuntza jakin bateko “hiztun” izatearen esanahia, bien arteko muga apur bat lausotuz (Hornsby, 2015). Historian zehar Soziolinguistika jatorrizko hiztunetan enfokaturik egon bada ere, geroz eta gehiago dira begirada ‘hiztun berriengana’ zuzentzen dutenak, izan ere, hizkuntzen biziraupenean garrantzi handia hartu dutela erakutsi dute, esaterako kopuru mailan, batzuetan hiztun tradizionalen taldea gainditzera (Ortega eta beste, 2013).

Baina *hiztun berri* terminoaren definizio zehatz bat ematea ez da batere erraza, eta noski, ikertzaile bakoitzak bere hiztun berriaren kontzeptua du, baita *hiztun zahar* terminoarena ere.

Batetik, *Hiztun berri* hezkuntza formal bidez ikasi duen edo ikasten ari den horri deitzen zaio, zeina hizkuntza era baikor batean ikasteko prest dagoen. Batzuetan, hiztun berri hau ez da ethno-linguistikoki talde hartakoa, eta honek, hiztun tradizionalen eta hiztun berrien arteko gatazkak edo tentsio egoerak dakartza (Hornsby, 2015). *Hiztun berri* terminoak, gainera, ez du zertan hizkuntza gutxituei loturik egon, subjektuak ikasi berri duen hizkuntzari baizik (O’Rourke eta beste, 2015).

---

**Hizkuntza gutxituaren komunitatearentzat erronka handia da murgilketa bezalako eredu bat jartzea, lan handia eta azpiegitura asko baititu atzean, hala nola, irakasleen hizkuntza-prestakuntza, hezkuntza elebidunerako prestakuntza edota hizkuntza gutxituan irakasteko material didaktikoen sorkuntza.**

Beste ikuspuntu batetik ere begiratu izan da *hiztun berri* definizioa. Esate baterako, Jaffe-k (2015) *hiztun berri* izatea faktore sozialak eragiten duen jarrera batekin lotzen du, hots, hizkuntza komunitate batean hiztunak duen gaitasunarekin, ‘jatorrizko hiztunen’ iritziekin... Honekin loturik, bere iritziz, “hiztun berri” eta “hiztun zahar” terminoek karga ideologiko handia daramate eskutik, hizkuntza gutxituetako hiztun izatea zer den eztabaidara ekarriz.

Hala eta guztiz ere, O’Rourke eta besteren arabera (2015), jatorriz, *hiztun berri* terminoa hizkuntza gutxituak mantentzeko eta biziberritzeko interbentzio linguistiko eta politikoa behar izan dutenetan jaio da, eta poliki-poliki hiztun berri terminoa beste definizio zaharrago batzuen gainetik jartzen ari da, hauen artean: *ez-natibo, elebidun, H2 hiztun edo ikasle, emergent bilinguals, multilingual subject*...

Euskararen kasuan, *euskaldunberri* terminoak gatazkak ekarri ditu hiztunen artera, *euskaldun, euskaldunberri* eta *euskaldun zahar* terminoen arteko lehia modukoa sortuz, eta hizkuntza bera legitimotasunarekin lotutako territorio bat bilakatuz (Ortega eta beste, 2013). *Euskaldun berri* terminoa hain dago sartua euskaldunen artean, non hiztegieta ere sarrera bat duen profil zehatz bat deskribatzeko: “*Nuevo vasco parlante o hablante del euskera que lo ha aprendido de mayor y aquel que tiene la lengua castellana, francesa o cualquier otra como lengua materna. Término utilizado para diferenciarlo del hablante en euskara o euskaldun como lengua materna*” (Wikcionario).

Antzekoa gertatzen da Galizian, galiziera gaztetan edo heldutan ikasi dutenak *neofalante* dira, *neo* aurrizkiak ‘berri’ esan nahi baitu, bretoieraren moduan. Katalanaren kasuan, ordea, ez dago *hiztun berri* etiketarik, baina hiztun berritasuna gerok eta presenteago dago soziolinguistikako lanetan, eta *katalan berri* bezalako terminoak darabiltzate katalana bigarren hizkuntzatzat duten elebidunentzat.

Irlanderaren kasuan, bestetik, beste motatako etiketak darabiltzate ezberdintasuna eta onarpen eza adierazteko, sozialki baztertzeko. Horrela, hiztun berrien profilak autentikotasunetik aldentzen dituzte. Esaterako, *gaeilgeoir* ‘irlanderako hiztun’ hitza oso gutxitan erabiltzen da hiztun natiboak kalifikatzeko, baina batzuetan era despektiboan erabiltzen da hizkuntza helduaroan ikasi dutenekin (O’Rourke eta beste, 2015).

*Hiztun berri* terminoa berez, guztiz neutroa bada ere (‘jatorrizko hiztun’ bezain neutroa), kasu batzuetan, hiztunak kontziente izan gabe, ‘jatorrizko hiztuna’ eredu zuzentzat hartzen da: “*the user of ‘well-formed’ sen-*

tences” (O’Rourke eta beste, 2015: 7). Jatorrizko hiztunaren terminoa komunitate zehatz bati eta bere historia eta iragana izan duen territorio bati lotzen baitzaio.

Bestalde, gizarte mailan konnotazioz beteriko terminoa bilakatu da, aurrerago ikusiko dugun bezala, jatorrizko hiztunaren idealizazioaren ondorioz. Bereizketa honen azpian arrazoi asko daude, besteak beste, jatorrizko hiztun tradizionalak duten (baina hiztun berriek ez daukatela pentsatzen duten) azentua, zehaztasuna, jariakortasuna, lexikoa eta esapideen jakintza (Hornsby, 2015). Baztertze edo bereizketa honek hiztun berriek hizkuntza berriarekiko duten identitatean zuzenean eragiten du, beren burua hiztun arrunt bat jotzeko arazoak edukiz, eta beti hiztun berria izatera “kondenaturik” egonda, honek beranduago ikusiko ditugun ondorioak dakartzalarik euren hizkuntza-identitatean.

Jaffe-k (2015) ‘hiztun berriek’ euren burua ‘hiztun berrizat’ jotzeko faktoreak eta baita ‘jatorrizko hiztunek’ delako hizkuntza ikasi dutenei ‘hiztun berri’ deitzeko faktoreak ere aztertu ditu. Orotara, sei faktore azpimarratzen ditu: bigarren hizkuntza ikasi zuten adina, hau ikasteko modua, lortutako hizkuntza gaitasuna, erabilera maila edo mota eta jariakortasuna, hiztunaren bere buruaren identifikazioa (“self-identification”) eta egozte soziala (“social attribution”).

Lan honetan, euskara, galiziera eta irlandera ikasi duten hiztun berrien identitatea aztertuko da, baina horretara jo baino lehen, hizkuntza baikoitzaren egoera soziolinguistikoaren oinarritzko datu batzuk emango ditugu, arreta berezia hiztun berrien bilakaeran jarrita.

#### 4. EUSKARAREN DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

I

*V. inkesta soziolinguistikoaren arabera* (Eusko Jaurlaritzak, 2012) 2.648.998 biztanletatik 714.136 elebidunak dira, hau da, euskara dakite, eta 388.255 elebidun hartzaileak dira (ulertu bai, baina hitz egiten ez dutenak). Hor-taz, 16 uretik gorako elebidunak %41,7 lirateke, eta hauen %14,7 elebidun hartzaileak.

---

***Euskararen kasuan, euskaldunberri terminoak gatazkak ekarri ditu hiztunen artera, euskaldun, euskaldunberri eta euskaldun zahar terminoen arteko lehia modukoa sortuz, eta hizkuntza bera legitimotasunarekin lotutako territorio bat bilakatuz.***

**Kopuru zehatzetan, 185.600 elebidun gehiago zeuden Euskal Herrian 2011n, 1991n baino, hazkunde hau batez ere Nafarroan eta EAEn gertatu delarik.**

1. taula. Euskal Herria EAE NAFARROA IPARRALDEA

	Euskal Herria	EAE	NAFARROA	IPARRALDEA
GUZTIRA	2.648.998	1.873.498	537.139	238.360
ELEBIDUNAK	714.136	600.058	62.977	51.100
ELEBIDUN HARTZAILEAK	388.255	325.967	40.546	21.742
ERDALDUNAK	1.546.607	947.473	433.616	165.518

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011.

Hiztun elebidun kopuruari dagokionez, 25 urtetik beherakoen artean %76 dira hezkuntzaren eredu elebiduneko ikasleak (igoera handia gertatu da, 1983-84 ikasturtean %14 zirela kontuan hartuz).

Murgilketa ereduari esker, azken inkesta soziolinguistikotik %27 igo da elebidun kopurua Euskal Herri mailan. Ehunekoari dagokionez, EAEn biztanleriaren %32 osatzen dute, Iparraldean %21,4 eta Nafarroan %11,7. 1991ko datuekin alderatuz, EAEn %7,9 igo da elebidun kopurua, Iparraldean %5 eta Nafarroan %2,2.

Kopuru zehatzetan, 185.600 elebidun gehiago zeuden Euskal Herrian 2011n, 1991n baino, hazkunde hau batez ere Nafarroan eta EAEn gertatu delarik. Ondorioz, EAEn biztanleriaren ia erdia elebiduna da: %50,4 erdalduna, %32 elebiduna eta %14,7 elebidun hartzailea. Nafarroan, berriz, %80,7 erdaldunak dira, eta %19,2 elebidunak (horien %7,5 elebidun hartzaileak). Iparraldeko kasuan, ordea, %69,4 erdalduna bada ere, %21,4 elebiduna da, eta %9,1 elebidun hartzailea.


EAEn elebidun kopurua Nafarroan eta Iparraldean baino altuagoa da, baina Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako egoera ez da berdina. Araban dago erdaldun kopururik handiena (%66,4), ondoren Bizkaia duela atzetik (%56,8), eta azkenik, Gipuzkoa (%33,7). Elebidunei dagokienez, Gipuzkoan daude gehien (%66,3), ondoren Bizkaian (%43,2), eta, azkenik, Araban (%33,6).

Elebidun kopurua asko igo bada ere (185.600 elebidun gehiago 1991n baino), biztanle elebidunen perfil soziolinguistikoa ez da berbera. 1991n bildutako datuen arabera, elebidunen %79,3 "euskaldun zaharra" edo euskara etxean ikasi zuen elebidun motak osatzen zuen, mota honetako elebidunak adin tarte guztietan nagusi zirela.

Egun, ordea, euskaldun zaharrek elebidunen %52,4 osatzen badute ere, ez dira adin tarte guztietan nagusi. Izan ere, gazteen artean irauli egin

da egoera, 16-24 urte bitarteko gazteen %46,8 elebidunak (bikoiztu egin da kopurua), eta hauetatik %51,9 euskaldun berri elebidunak dira (1991ean adin tarte honetako euskaldun berrien kopurua %15ekoa zen).

#### 1. irudia. Elebidunak lehen hizkuntzaren arabera. Euskal Herria, 2011 (%)



Lehen irudian ikus dezakegun bezala, elebidunen %52,5 etxetik euskara ikasi duten elebidunak izan arren, %34,9 euskaldun berriek osatzen dute, hortaz, etxetik kanpo euskaldundu direnak, euskaltegiaren edo eskolaren bitartez. Honek euskarara hiztun asko dakartza, euskara ikasi dutenak 220.000 lagun baitira EAEn (1991. urtean baino 160.000 gehiago). Nafarroan 23.500 hiztun berri ditugu, 1991. urtean baino 17.000 gehiago. Bukatzeko, Iparraldean, 7.000 hiztun berri, 1991n baino 5.000 gehiago.

Bestetik, jatorrizko elebidunak (bi hizkuntzak jaiotzetik maila berean jaso dituzten hiztunak) elebidunen %12,6 dira. Talde hau handiagoa da urtez urte, eta orokorrean, bikote mistoen eta *euskaldunberrien* seme-alabek osatzen dute.

Eusko Jaurlaritzaren (2010) estatistiken arabera hezkuntza bidezko irakaskuntzari helduz, faktore garrantzitsua da D ereduaren bitarteko murgiltzea. Zehazki, EAEn 196.410 ikasle (333.228tik) D ereduan matrikulaturik. Gipuzkoan %74, Bizkaian %54 eta Araban %39 matrikulatu ziren 2009-2010 ikasturtean.

Datu hauek garrantzitsuak dira, D ereduan ikasten duten ikasle batzuk etxetik erdaldunak baitira, eta murgiltze eredu honen bidez euskara ikasten baitute. Euskara lehen hizkuntza dutenentzat, gainera, hezkuntza eredu honek euskararen ikasketa eta mantentzea bermatzen du.

## 5. GALIZIERAREN DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

Galiziera, besteak beste, Galizian hitz egiten den hizkuntza gutxitua da, gaztelaniarekin batera ofiziala dena gaur egun. *Ethnologueren* eta

**Elebidun kopurua asko igo bada ere, biztanle elebidunen perfil soziolinguistikoa ez da berbera. 1991n bildutako datuen arabera, elebidunen %79,3 "euskaldun zaharra" edo euskara etxean ikasi zuen elebidun motak osatzen zuen, mota honetako elebidunak adin tarte guztietan nagusi zirela.**



---

**Galiziera  
Galiziako  
biztanleriaren  
%99,9k ulertzen  
du, %86,4k hitz  
egin, %45,9k  
irakurri eta  
%27,1ak idatzi.**

**Haurrei beti  
galizieraz hitz  
egiten dieten  
gurasoak %41,68  
dira, eta beti  
gaztelaniaz  
egiten dietenak  
%31.**

Instituto Gallego de Estadística arabera (IGE) 2.340.000 hiztun dituen hizkuntza dugu. Indoeuroperaren barnean kokatzen da, eta gaztelania eta portugesearen ezaugarriak gordetzen dituen erromantzea da.

Ezagutzari dagokionez, 2008ko datuen arabera, galiziera Galiziako biztanleriaren %99,9k ulertzen du, %86,4k hitz egin, %45,9k irakurri eta %27,1ak idatzi.

Ezagutzaren %82 familian emandako transmisioaren ondorio da. 30 urtetik beherako hiztunen artean, berriz, gehiago dira hezkuntza bitartez ikasi dutenak (%86,52) familiako transmisioaren bitartez ikasi dutenak baino (%67,46) (IGE, 2008).

Hala eta guztiz ere, haurrei beti galizieraz hitz egiten dieten gurasoak %41,68 dira, eta beti gaztelaniaz egiten dietenak %31.

Esandakoa kontuan hartuz, gauza jakina da biztanle elebidun kopuruak zeresana izango duela galizierari dagokionez, 25 urtetik beherakoen %57 elebidunak baitira (IGE, 2008).

Hezkuntzari dagokionez, 2013ko datuen arabera, ikasle galiziarren %2,15ak soilik jasotzen ditu eskola guztiak galizieraz. Ikasgai gehienak galizieraz jasotzen dituztenak, aldiz, %43,7 dira. Bestetik, ikasgai gehienak gaztelaniaz jasotzen dituzten ikasleak %51,8 dira eta gaztelaniaz bakarrik jasotzen dituztenak %3,08.

Hezkuntzak hiztun berriak edo *neofalanteak* dakartza urtero galizierara. Orotara 423.000 hiztun dira hauek, batez ere 14 urtetik gorakoak eta ama hizkuntza (H1) gaztelania dutenak, hauek *neofalanteen* %68 dira.

Erabilerari helduz, Galiziako biztanleen %68k darabil galiziera, eta honen aldean, gaztelania soilik erabiltzen duten biztanleak populazio osoaren %26 inguru dira.

Erabilera eremuak landa-eremuetara mugatzen dira batez ere, nahiz eta hirietan ere bizirik dirauen.

2013ko datuen arabera, populazioaren %31,2 beti galizieraz mintzatzen da. Galiziera gaztelania baino gehiago erabiltzen du %20,29k. Gaztelania gehiago galiziera baino, berriz, %22,36k. Azkenik, beti gaztelania erabiltzen duten hiztunak %26 inguru dira.

Euskararen kasuan bezala, erabilera aldatu egiten da adinaren arabera. Alde nabarmenena 65etik gorako eta 5-14 urte bitarteko biztanleen artean dago, non 65 urtetik gorako biztanleen %52k beti galizieraz egiten

duen, eta %21ak galiziera gehiago gaztelania baino. 5-14 urte bitartekoen artean, berriz, %13,2 beti galizieraz mintzatzen da eta %11,9k galiziera gehiago darabil gaztelania baino. Azkenik, %74,88k beti gaztelania baliatzen du.

Hiztun berriei helduz, aipagarria da 11.000 hiztun inguruk beren lehen hizkuntza (H1) alde batera utzi eta beren bigarren hizkuntza (H2), galiziera, erabiltzen dutela soilik: “Han relegado su lengua materna a un segundo plano. Son hablantes habituales de gallego, que, en los casos prototípicos (que son la mayoría) hablan exclusivamente este idioma” (O’Rourke & Ramallo, 2014: 100).

---

**Tradizioari  
jarraituz  
irlandera ama  
hizkuntzatzen  
duten eta  
irlanderaz gehien  
hitz egiten den  
eremuak daude  
(Ghaeltacht).**

## 6. IRLANDERAREN DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

Irlandera Irlandan hitz egiten den hizkuntza dugu, Erdi Aroan ingelesek irla konkistatu aurreko hizkuntza, hain zuzen. Gaur egun ingelesarekin ukipen egoeran bizi da eta 2011. urteko azterketaren arabera, hiztun kopurua 1.774.437 zen, populazioaren %40.6 (Central Statistics Office of Ireland, 2013).

Bizi duen ukipen egoera dela eta, bi eremu bereizten dira Irlandan hizkuntzari dagokionez: *Ghaeltacht* eremuak eta *Ghaeltacht* ez direnak. Hots, batetik, tradizioari jarraituz irlandera ama hizkuntzatzen duten eta irlanderaz gehien hitz egiten den eremuak daude (*ghaeltacht*) eta ingelesa hizkuntza nagusitzatzen duten eremuak ditugu besteak.

Lehenengo eremuari begira, Irlanda iparraldean eta mendebaldean kokatzen dira hiztun komunitate gehienak: Cork, Donegal, Galway, Kerry, Meath, Mayo eta Waterford konderriak dira, 96.628 biztanle guztira, eta bertako biztanleen %68ak irlanderaz hitz egiten daki (zifra altua *ghaeltacht* osatzen ez duten beste eremuekin alderatuz).

Irlanderaren ezagutzaren inguruko datuak azaltzeko, hezkuntza bidez egindako hautu esanguratsu bat aipatu behar da, izan ere, *gaelscoil* deritzen eskolen bidez hizkuntzaren irakaskuntza, jakintza eta erabilera asko zabaltzea lortu baitute, beti ere kontuan hartuz hizkuntza gutxitu bat dela, eta biztanleriaren %40,6ak dakiela. Eskola hauek irlandera hitz egiten den eremuetan eta eremu hauez kanpo antolatzen dira, gaur egun gehiago direlarik irlandera dakitenak eta *ghaeltacht* eremutik kanpo bizi direnak, hauetan bizi direnak baino.

Hezkuntza mota honen bidez hizkuntza ikasten duten %87 osatzen dute 5-18 urte bitarteko ikasleek, esaterako.

---

**Ghaeltacht  
eremuetan 156  
gaelscoil daude,  
15.000 bat ikasle  
leudeke. Handik  
kanpo, berriz,  
214 gaelscoil, 35  
500 ikaslez  
osaturik.**

Irlanderaren ezagutzarekin estuki loturik daude irlandararen hiztun berriak eta hauen izaera. Era berean, hiztun berri hauek estuki loturik daude aurretiaz aipatutako *gaelscoil* eskola motarekin. Hauek irlandera hizkuntza bakartzat duten eskolak dira, eta bi eremuetan daude, bai *ghaeltacht* eremuetan eta baita hauetatik kanpo ere, irlandera esparru zabalagoan jakitea ahalbidetuz. Hauek irlandararen bizitza bermatzeko ezinbesteko tresna izan dira, hauei esker ikasleen %36k hezkuntza irlandaraz bakarrik edo batez ere irlandaraz jasotzea lortu baita, eta ondorioz, H1 ingelesa duten horiek irlandera ikasteko aukera dute, 'hiztun berri' bilakaturik.

Gaur egun, *ghaeltacht* eremuetan 156 *gaelscoil* daude, hortaz, 15 000 bat ikasle leudeke. Handik kanpo, berriz, 214 *gaelscoil*, 35 500 ikaslez osaturik.

Esan beharra dago, irlandar errepublikan irlandera irakasgai nahitaezkoa dela eskoletan, eta ondorioz, 700.000—800.000 ikaslek ikasten dutela, hiztun berrien kopurua eskola eremuan asko hazaraziz.

Irlanderaren erabilerari eutsiz, hezkuntzatik kanpo, egunerokotasunean 77.185 hiztunek darabilte, populazio osoaren %1,8. Hauen %23 osatzen dute 5-18 urte bitarteko gazteek, eta %30 25-44 bitartekoek.

Erabilera diatopikoki aztertuz, ordea, hiztunen %35,2k landa eremuetan egiten du, batez ere 1.000 biztanletik beherako herrietan. Hiriei dago-kienez, Galway eta Cork inguruan erabiltzen da gehien.

Hiztun berrien kopuru handiena 3-18 urte bitarteko ikasleen artean badago ere, badira hiztun berri eta irlandera ikasteko metodo gehiago. Euskara ikasteko barnetegien antzera, irlandararen kasuan *Coláistí Samhraidh*ak daude, literalki 'udako unibertsitateak' esan nahi duena. Hauek udan antolatzen dira eta irlandera bakarrik hitz egiten da bertan.

## 7. IDENTITATEAREN ARABERAKO PROFILAK

I  
Beste zenbait faktorearen artean, 'hiztun zahar' edo 'hiztun natibo'-aren idealizazioaren ondorioz, 'hiztun berriek' zailtasunak dituzte euren burua "hiztun berritasunetik" ateratzeko, eta beraien buruarekiko konfiantza linguistiko hori lortzeko.

Jarraian datozen ataletan, euskara, irlandera eta galiziera ikasi duten hiztun berrien profilak sailkatuko dira, euren burua hizkuntzarekiko definitzen duten moduaren arabera.

Ondoren, profil bakoitzaren barnean, euren burua mota bateko zein besteko hiztuntzat jotzeko faktoreak aztertu eta faktore hauek euskararen, galizieraren eta irlandiararen kasuan nola bizi diren azalduko da.

Guztira, hiru profil zehaztu dira: ‘ez naiz hiztun zaharra’, ‘hiztun berria naiz’ eta ‘hiztuna naiz’ identitateei dagozkienak.

Jarraian, profil bakoitza euskararen, irlandiararen eta galizieraren kasuan aztertuko dira, euren burua talde hauetan sartzeko eragileak aztertuz.

### 1. “Ez naiz hiztun zaharra”

Hiztun berrien artean, euren burua ‘hiztun berri’ jo beharrean, batzuek nahiago dute hiztun zahar ez direla zehaztea.

Euskal hiztunak dira talde honetan agertzen diren hiztun bakarrak. Ez da honelako hizkuntza-identitate profilik agertu galiziera eta irlandera ikasi duten hiztunen artean.

Euskararen kasuan, Ortega eta besteren (2013) ikerketan, ikertutako hiztun batek berak ere ez du bere burua euskaldun zahartzat jo, honetarako arrazoitzat ama hizkuntza izanik, beste era batera esanda, ez dutelako euskara etxetik ikasi. Beraz, euskararen kasuan behintzat, hiztunek euren burua hiztun zahartzat ez jotzeko lehen eragilearen aurrean egongo ginateke.

Ama hizkuntzaren garrantzia ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, aurretiaz aipatu den bezala, idealizatu eta mitifikatu egin baita ama hizkuntza euskara duen hiztuna, hots, ‘hiztun natiboa’. Idealizazio honen ondorioz, hiztuna ezgauza da bere burua ‘hiztun zahar’ definitzeko, hizkuntza 50 urte atzerago ikasi badu ere:

*“Familian ikasitako hizkuntzak bizitza osoan zeharreko aldatu ezin den hizkuntza-identitatea mugatzen eta erabat baldintzatzen duela pentsatzea ohikoa da. Horrela, familian euskara ez bada ikasi, (...) berdin da hiztunak nolako gaitasun komunikatiboa lortu duen (...) ‘euskaldun zahar’, zentzu teknikoan esanda, ezin da izan” (Ortega eta beste, 2013: 160).*

Pentsamolde hau gazteen artean ere oso zabaldurik dago, nahiz eta gazte hauek euskara murgiltze-programen bidez ikasi duten, eta hortaz, elebiduntze prozesua haurtzaroan izan duten. Euren artean ere zabaldurik dago ama hizkuntzaren faktorea euren burua ‘euskaldun zahar’ ez definitzeko, ez baitute hau familian ikasi. Adierazpen honek ‘euskaldun zahar’ terminoa “familiako transmisioari” erabat loturik dagoela

---

***Bai gazte eta bai helduek,  
‘euskaldun zahar’ izatea eskura ezin dezaketean  
“abantaila” bat bezala ikusten dute euskara etxean ikasi ez dutenek.***

**Euskararen kasuan bezala, galiziera ikasi duten askok ‘hiztun berritzat’ (neofalante) dute euren burua. Honetarako ematen dituzten arrazoiak hainbat dira, haien artean, natiboek erabiltzen ez dituzten forma berrien erabilera, tokian tokiko galizieraren ezaugarrien falta eta erregistro informalaren falta.**

bermatzen du, *Ama-hizkuntzaren ideologiaren* ondorio, ideologia bat non delako hiztunak, delako hizkuntza ama hizkuntzatat duena idealizatu eta mitifikatu egiten duen, hauek hiztun ‘hobeak’, ‘legitimoagoak’ dirrelakoan (Ortega eta beste. 2013).

Laburbilduz, bai gazte eta bai helduek, ‘euskaldun zahar’ izatea eskura ezin dezaketen “abantaila” bat bezala ikusten dute euskara etxean ikasi ez dutenek.

## 2. “Hiztun berria naiz”

Hiru hizkuntzetako ikerketetan sarri agertu den hizkuntza identitatea ‘hiztun berriarena’ da:

### Euskararen kasuan

Euskarari helduz, tradizionalki *euskaldunberria* euskara heldu aroan (euskaltegian) ikasi duenari deitzen zaio, baina, Ortegak eta bestek (2013) erakusten duten bezala, gazteen artean ere gerorik eta zabalduago dago termino hau.

Batez ere, euren burua *euskaldunberri* jotzeko arrazoitzat ama hizkuntza gaztelania izatea, gaztelania euskara baino gehiago erabiltzea, eta, gaitasun aldetik gaztelania hizkuntza nagusia izatea (eta horren ondorioz pentsamenduak eta barne-gramatika gaztelaniazkoak izatea) dira:

- “Nik askotan pentsatu behar dodaz lehenengo gauzak gaztelaniaz gero euskaraz botateko, adibidez. (...) Hasten banaz euskaraz berbetan, automatikoki irtetzen zait ere, baina printzipioz nire pentsamoldeak antolatzeke hizkuntza gaztelania da. Niretzako hor egongo litzateke beharbada ezbardintasuna, euskaldunbarri baten kasua edo euskaldun zahar batena” (Ortega eta beste, 2010: 161)

Hiztun honen kasuan, bere burua ‘hiztun berritzat’ jotzen du pentsamendu eta barne-gramatikaren ondorioz, nahiz eta euskaraz hitz egitean automatikoki irteten zaiola aitortzen duen. Bestela esanda, hiztun honentzat, hitz egiteko erraztasunak baino pisu handiagoa dauka pentsamenduen antolaketarako hizkuntzak.

### Galizieraren kasuan

Euskararen kasuan bezala, galiziera ikasi duten askok ‘hiztun berritzat’ (*neofalante*) dute euren burua. Honetarako ematen dituzten arrazoiak hainbat dira, haien artean, natiboek erabiltzen ez dituzten forma berrien

erabilera, tokian tokiko galizieraren ezaugarrien falta eta erregistro informalararen falta.

Azken arrazoi hau azaltzean, badago bere galiziera “inautentikoa” dela uste duenik ere:

- M: “A miña variedade é defectuosa (...) miña variedade non é nin diatópica nin diafásica, que a miña...eu falo o galego que podo. Cada día intento falar mellor, e agora pois si intento máis o menos meter variedades de miña zona o intentar melloralo, facelo..., pero para min o meu galego e inautántico” (O’Rourke & Ramallo 2010: 1693)

Beraz, hiztun honek diatopikoki eta diafasikoki galiziera egokirik ez duela uste du, bere hizkera “ez-autentiko” definituz. Lekukotasun honekin batera, O’Rourke eta Ramallo-ren (2010) lanean badaude beste hiztun batzuk non aitortzen duten galiziera eskolan ikasi izanagatik euren galiziera ‘galego de libro, galego pobre’ dela. Unibertsitateko ikasleen artean, batez ere, esplizituki esaten da *neofalante*-en galiziera kalitate baxukoa dela, naturala ez dena eta arazo formalak dituena.

Beste era batera esanda, *neofalanteak* erabat kontziente dira bai eskolan eta eremu formaletan ikasten duten aldaera estandarraz, eta hau ez dela galiziera etxetik ikasi duten hiztunen galizieraren berdina. Horregatik, euren galiziera ‘liburukoa’ eta ‘telebistakoa’ jotzen dute, ikasitako aldaera ‘artifiziala edo *alien-a*’ definituz, akatsez betetako hizkuntzatzat dutelarik (O’Rourke & Ramallo, 2011).

Pentsaera honen azpian, beraz, hiztun zaharraren idealizazioa, kaleko galizieraren idealizazioa, aldaera eta erregistro informalararen falta eta ama hizkuntzaren ideologia daude, hauen “gabeziak” eramaten baitu hiztuna bere burua ‘hiztun berri’ taldean sartzera.

Aipatu beharra dago, talde honek kontzientzia ideologiko sendoa duela, eta galiziera ikasteko motibazio handienetako bat dela Galizian indarra duen pentsamendu nazionalista. Horregatik, pentsamendu honen parte ziren baina galiziera hitz egiten ez zekiten hainbat eta hainbat dira egun *neofalante*.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta galiziera hitz egiten den harreman-sareetan murgildurik egon, darabiltzaten forma “hibridoak” ondorioz *castrapotzat* jo izan dituzte hiztun zaharrek, gaztelania hitz egiten dutenak izendatzeko mespretxuzko forma (O’Rourke & Ramallo, 2015).

---

***Neofalanteak  
erabat kontziente  
dira bai eskolan  
eta eremu  
formaletan  
ikasten duten  
aldiera  
estandarraz, eta  
hau ez dela  
galiziera etxetik  
ikasi duten  
hiztunen  
galizieraren  
berdina.***

**Bere burua neofalantetzat duen hiztunaz gain, galizieran ez euskaran eta ez irlanderan topatzen ez dugun profil bat dugu: elebiduna izan arren, bigarren hizkuntza (H2) ikastea, lehen hizkuntza (H1) alboratu eta H2 soilik erabiltzen duen hiztuna.**

### Bigarren hizkuntza (galiziera) soilik erabiltzen duen elebiduna

Bere burua *neofalantetzat* duen hiztunaz gain, galizieran ez euskaran eta ez irlanderan topatzen ez dugun profil bat dugu: elebiduna izan arren, bigarren hizkuntza (H2) ikastea, lehen hizkuntza (H1) alboratu eta H2 soilik erabiltzen duen hiztuna.

H2 lehenesteko jokabideari *language displacement* edota *desplazamiento de lengua* deritze O'Rourkek eta Ramallok (2014, 2015):

“Trabajamos con una caracterización restrictiva del neohablante, coincidente con el uso mayoritario de esta etiqueta en el caso gallego. Es decir, personas que aprenden el gallego en la escuela (o en el trabajo, o con amigos) y que, en un momento dado de su vida, desplazan la lengua materna (el español) y pasan a hablar solo o muy mayoritariamente gallego” (O'Rourke & Ramallo, 2014: 99)

O'Rourke eta Ramallorentzat (2014) kopuru mailan mota honetako hiztunak gutxi badira ere, faktore garrantzitsua dira galizierarentzat eta honen biziraupenarentzat, hiztun hauek duten hizkuntzarekiko konpromiso maila handia dela eta.

Hauek, galizieraren erabilera nagusi honengatik, hiztun dinamikoak dira oso, 'gutxiengo aktibo' bat osatzen duten hiztunak, hain zuzen. Talde honetan 11.000 bat hiztun leudeke, 14 urtetik gorako hiztunen %0,5 eta 14 urtetik gora H1 gaztelaniadun hiztunen %2.

Beraz, hiztun mota hauek euren burua 'hiztun berrizat' jotzen dute, baina beste bi hizkuntzetan agertu ez den profil batean aurrean gaude, beste bi hizkuntzen kasuan ez bezalako ezaugarriak dituzten hiztun berri batzuen aurrean, hain zuzen. Izan ere, H1 alde batera utzi eta egunerokotasunean (edo ia beti) soilik H2 erabiltzen duten hiztunak dira, eta honelako beste hiztunik ez da topatu aztertutako beste hizkuntzetako hiztunen artean.

### Irlanderaren kasuan

Irlandera bigarren hizkuntza dutenen artean joera handiena da euren burua 'new speaker' gisa definitzea. Hala ere, jarraian azalduko dudana bezala, gaelikoa bigarren hizkuntza duten hiztunen artean, euren 'hiztun berri' jotzeko arrazoiak ez dira berdinak.

Batzuek, 'hiztun berri' definizioa marka linguistiko bat bezala ikusten dute, zenbait ezaugarriren faltaren ondorio, haien artean, 'irlandar ku-

tsua<sup>17</sup>. Izan ere, gaelikoa hitz egiten duten hiztunen ‘kutsu’ edo ‘ahoskera’ hori ez da beti berdina, aldaera geografikoarekin oso loturik baitago. Beraz, hiztunen jatorriaren arabera, ahoskatzeko edo hitz egiteko modu bat edo beste duten hiztunen irlandera hau, hiztunen artean behintzat, irlandera estandarraren gaineratik dago prestigioari dagokionez eta gaelikoa ikasi dutenak oso kontziente dira. Horregatik, euren hizkeratan “kutsu” gaelikorik ez dutela ikustean, askok, automatikoki, euren burua ‘hiztun berri’ definitzen dute (McLeod, O’Rourke & Dunmore, 2014):

“- Many participants identified blas as a key marker distinguishing native speakers and new speakers. Most used the term blas simply to mean accent, but its full meaning may well be a good deal richer (...) and the use of idiomatic expressions, which combine to bestow an almost palpable aesthetic quality to one’s speech” (McLeod, O’Rourke & Dunmore, 2014: 39)

Irlandera ‘kutsu’ horrekin oso loturik, euskararen kasuan ikusi dugun bezala, aldaera geografikoa izatea oso garrantzizkoa da irlandararen hiztunentzat, eta ondorioz, irlandera ‘egokia’ ikasi nahi dute hauek, geografikoki lotura bat duen irlandera: dialektoa (McLeod, O’Rourke & Dunmore, 2014; Walsh eta beste, 2015).

Aurretiaz esan bezala, gaelikoa bigarren hizkuntza dutenentzat, aldaera geografikoa (eta beraz, *kutsua*) eta erregistro informala edukitzea da prestigiodun irlandera, ingeleseko hitzik ez duena, purua (Walsh & O’Rourke, 2014; Walsh & O’Rourke, 2015; Walsh eta beste, 2015).

Baina, nahi edo desira honen aurrean, irlandera estandarra ikasten dute hauek, bai eskolan eta baita eskolatik kanpoko hezkuntza formalean ere. Horrek, hiztunek hizkera ‘artifizial’ edo ‘ez naturala’ daukatela esatera eramaten ditu, eta egoera informaletan duten erregistro faltak konfiantza falta ematen die (Walsh & O’Rourke, 2015; Walsh eta beste, 2015). Konfiantza falta hau, gainera, gaelikoa lehen hizkuntza duten hiztunek duten jarrerarekin erabat loturik dago, heuren gaelikoa ikasi dutenen hizkera honi *book irish* deitzeen baitiote, lexiko ‘arkaikoa’ edukitzearen ondorioz.

Honekin loturik, esanguratsua da irlandera lehen hizkuntza dutenen %27k bakarrik aitortzen duela ‘hiztun berriak’ irlandararen hiztun direla. Hau da, ‘hiztun berriei’ ‘hiztun natiboen’ %27ak soilik aitortzen die irlandararen hiztunak direla, gainerakoek (%73) ez dute uste irlandera ama hizkuntza ez den beste modu batera ikasi duten horiek ‘hiztun’ direnik, ez diete irlandararen hiztun izateko ‘zilegitasuna’ edota ‘legitimitatea’ ematen hiztun berriei (O’Rourke & Ramallo, 2011).

---

**Hiztunen jatorriaren arabera, ahoskatzeko edo hitz egiteko modu bat edo beste duten hiztunen irlandera hau, hiztunen artean behintzat, irlandera estandarraren gaineratik dago prestigioari dagokionez eta gaelikoa ikasi dutenak oso kontziente dira.**



**Aurretiaz esan bezala, gaelikoa bigarren hizkuntza dutenentzat, aldaera geografikoa (eta beraz, kutsua) eta erregistro informala edukitzea da prestigiodun irlandera, ingeleseko hitzik ez duena, purua.**

Bestetik, Mcleod, O'Rourke eta Dunmore (2014) adituen arabera, 'gael' terminoa hizkuntzatik harago doa, hots, talde kultural bat ere adierazten du, kulturalki baturik dagoen komunitate bat (irlandarra). Honen ondorioz, Eskoziako hiztun berri batzuk ez dira euren burua 'gael' definitzera ausartzen.

Kasu hau bera aztertzen da O'Rourke eta Walsh-en (2015) lanean, irlandera bigarren hizkuntza duen hiztun batek berak aitortzen baitu beretzat 'hiztun ona' izatea espazio fisiko bati loturik dagoela, baita atzean gelditu den antzinako belaunaldi bati ere, zeina kalitate handiagoko irlandera baten hiztuna zen.

Horietaz gain, euren burua 'learner' kontetu jakin batzuetan soilik jotzen duten hiztunak ditugu, zehazki, soilik irlandera lehen hizkuntzatzat duten hiztunekin.

Azkenik, irlandera erabiltzen unibertsitatean hasi ziren hiztunak ditugu talde honetan, "hain berandu" erabiltzen hasi izanagatik, euren burua 'hiztun berri' definitzen dutenak (Walsh & O'Rourke, 2014).

Laburbilduz, ikusi dugu irlandararen kasuan ere, euren burua 'hiztun berrien' taldean sartzeko faktore ezin erabakiorragoak direla irlandar *kutsuak* gizartean duen prestigioa (ama hizkuntzaren ideologia atzean duena), jatorriz irlandarra ez izatea, irlandera berandu ikastea eta erregistroaren eta aldaera geografikoaren falta.

### *3.' Ez hiztun berri, ez zahar, hiztuna besterik gabe'*

Badago, hiztunen artean, 'hiztun berri' eta 'hiztun zahar' terminoen artean eroso sentitzen ez denik, eta horregatik, euren burua bietako baten artean ezin kokaturik, besterik gabe, bere burua 'hiztun' definitzera jotzen dute.

Talde honetan irlandararen eta euskararen hiztunak bakarrik topatu ditut, beraz, ez da galizierako hiztunik bere burua hemen kokatzen duenik.

### **Euskaren kasuan**

Euskararen kasuan, 'euskaldun' definitzen dute batzuek euren burua, batez ere, euskarazko gaitasun maila altua edukitzeagatik, sare euskaldunetan integratuta egoteagatik, eguneroko bizitzan euskara erabiltzen dutelako eta tokian tokiko aldaera (euskalkia) edo erregistro-aldakortasuna dutelako.

-“Urte asko emon dodaz, esan bezala, Gernika, Gernika inguruan, eta gero Lea-Artibaitik, eta lana dela-eta, eta nik ikusi dot be bai hangoen erreakzioa, eta hainbatetan harritu egiten dira jakitean euskaldun barrixa nazela. (...) igual berba eitzeko era, edo ez dakit, ez dakit (...) Izan leike doinua, izan leike hiztegia...

- Batueraz ez duzulako egiten” (Ortega eta beste, 2013:162).

Eragile horietatik, harreman-sare euskaldunak izateak eta aldaera eta erregistroaren faktoreak garrantzi berezia eta pisu handia dute, euren burua ‘euskaldun’ definitzen duten horiek eremu euskaldunetakoak eta euskara batutik nolabait aldentzen den euskalki bat duten lekuetan bizi direla iradokitzen baitu. Hau da, hizkuntza erabiltzeko aukera duten eta aldaera edo euskalki bat duten hiztunek erraztasun handiagoa dute euren burua ‘euskaldun’ definitzeko eremu erdaldunetan bizi diren eta erregistro aldaketarik edo euskalkirik ez duten hiztunek baino. Izan ere, irlandiararen eta galiziararen kasuan bezala, hiztunen artean tokian tokiko hizkera da baloratua, eta euskara batuari baino legitimitate handiagoa ematen zaie hauek dituzten hiztunei eta hauen hizkuntzari.

Euskal hiztun gehienek, berriz, euskara batua ikasi dute, eta hiztun zaharren hizkera eurenarekiko ezberdina dela ikustean, hauek ere beren hizkera “artifizialtzat” edo “ez jatortzat” jotzeko joera dute, baita euskaldun zaharren artean ere, eta honek nabarmen eragiten du hiztun berri askoren auto-pertzepzioan (Ortega eta beste, 2013):

Adjektiborik gabeko ‘euskaldun’ jotzeko joera gazteen artean da nagusi, baina euskara heldu aroan ikasi dutenen artean ere antzematen da, gehienetan, aldaera edo lagun arteko hizkera duten hiztunengan, aldaera edukitzearen ondorioz, ‘hiztun zaharrek’ ere ‘euskalduntzat’ baitituzte.

Honek guztiak adierazten digun beste gauzetako bat da, gazte zein heldu batzuen artean dagoen dikotomia ez dela ‘euskaldun zahar’ ala ‘euskaldun berri’, baizik eta ‘euskaldun berri’ eta ‘euskaldun’ kategorien artekoa. Eta, honekin loturik, batzuentzat auzia ‘benetako euskaldun’ izatearekin baino, ‘benetako euskaldun’ izateko zerbaiten “gabezia” horrekin dagoela.

Euskararen kasuarekin amaitzeko, esan beharra dago, hiztun berri gazteek “euskalduntasunarekin” lotzen dituzten elementu batzuk ez direla helduek aipatutakoen berdinak. Esaterako, “euskalduntasuna” legitimitasunarekin lotzen badute ere, euskal hiztun izatearekin eta Euskal Herritarra izatearekin ere lotzen dute askotan (kultura edo nazio identitateari lotua):

---

***Badago, hiztunen artean, ‘hiztun berri’ eta ‘hiztun zahar’ terminoen artean eroso sentitzen ez denik, eta horregatik, euren burua bietako baten artean ezin kokaturik, besterik gabe, bere burua ‘hiztun’ definitzera jotzen dute.***

**Adjektiborik gabeko 'euskaldun' jotzeko joera gazteen artean da nagusi, baina euskara heldu aroan ikasi dutenen artean ere antzematen da, gehienetan, aldaera edo lagun arteko hizkera duten hiztunengan, aldaera edukitzearen ondorioz, 'hiztun zaharrek' ere 'euskalduntzat' baitituzte.**

- "Bai, bai nik adibidez lotzen dut euskadun izatea lehenego ideia da Euskal Herrian bizitzea, baina gero hizkuntzarekin lotzen dut gehiago adibidez euskaldun berria deitzea edo. Nik adibidez ez dakit euskaldun berria naiz edo ez, ze euskara ez dut ama hizkuntza bzala eta euskalduna sentitzen naiz Euskal Herrian bizitzen naizelako bakarrik (...)" (Ortega eta beste, 2013: 166).

Beraz, hiztun honek euskal herritartzat dauka bere burua, euskal kulturaren eta nazioaren identitatea aitortzen dio bere buruari, baina ez da hizkuntzari dagokionean identitatea zehaztera ausartzen, euskara ez duelako ama hizkuntza (euskaraz ari bada ere).

Honen arabera, gazte batzuentzat *euskaraz hitz egitea* eta *euskalduna izatea* ez da berdina, hots, euskaraz hitz egiteak ez du zertan automatikoki *euskaldun* egiten. Horretaz gain, gazteen iritziz, hortaz, hizkuntza hitz egite hutsak ere ez du *hiztun legitimoa* izatea ziurtatzen, ez da horretarako nahikoa (Ortega eta beste, 2013).

#### **Irlanderaren kasuan**

Gutxi badira ere, badira irlandera bigarren hizkuntza duten zenbait hiztun euren burua adjektiborik gabeko hiztuntzat dutenak. Hauek haurtzaindegitik irlandera ikasi duten hiztunak dira gehienbat, hots, irlandera bigarren hizkuntza bezala oso gaztetan ikasi zutenak. Hauek euren burua 'gael' definitzen dute:

- "I would say that I'm a Gael, I don't know why that is. And I wouldn't say to people that I'm a learner; I don't remember learning Gaelic, so, I just have it; that's how it is. . . . So, I know that [native speakers] say to me in conversation, maybe fifteen minutes in, and they say to me, 'Oh, so where do your parents come from?' And I say, 'Well, my father comes from [town near Glasgow] and . . . 'Are they Gaels?' 'No.' 'No . . .?!' And it's as if they look at me in a different way after that. And I think that's really strange, because I have no memory of learning Gaelic" (Mcleod, O'Rourke & Dunmore, 2014: 22).

Hortaz, hiztun honen arabera, bera 'gael' sentitzen da, ez baitu bigarren hizkuntza hau ikasi zuelako oroitzapen ezta konstzientziarik.

Bestetik, eguneroko bizitzan erabiltzearen ondorioz, bai familian eta baita lagunartean ere, euren burua 'gael' jotzen duen hiztunak ere badira:

"I would say that I'm a speaker: I speak Gaelic all the time at home and with friends and if that doesn't count, I don't know what else counts" (Mcleod, O'Rourke & Dunmore 2014: 26).

Laburbilduz, gutxiago badira ere, badira euren burua ‘gael’ jotzen duten hiztunak, nahiz eta irlandera beren lehen hizkuntza ez izan. Horrela pentsatzeko eragiten duten faktoreak, batez ere, jabekuntza goiztiarra eta irlandeararen eguneroko erabilera ditugu.

## 8. ONDORIOAK

**I** Euskara, irlandera eta galizieraren ‘hiztun berrien’ hizkuntza-identitatea, auto-perzeptzioa aztertu den lan honetan, eta hiztunen auto-perzeptzioaren arabera sailkatutako profiletan zenbait patroi errepikatzen direla ikusi da, baina beste zenbait ez.

Antzekotasunei helduz, bigarren profilarri dagokionez, euskararen, irlandeararen eta galizieraren ‘hiztun berrien’ artean badaude errepikatzen diren ideiak euren auto-perzeptzioan, izan ere, hiru hizkuntzetako hiztunek euren burua talde honetan kokatzeko ematen dituzten arrazoiak, batik bat, ama hizkuntza euskara, irlandera eta galiziera ez izatea da.

Arrazoi honetaz gain, hiru hizkuntzen kasuan ikusi da aldaera geografikorik ez izatea eta erregistro informalik ez izatea (eta irlandeararen kasuan jatorrizko hiztunek duten ‘kutsua’ edo ‘ahoskera’ falta) pisuzko arrazoiak izan direla hiztunek euren burua ‘hiztun berrizat’ jotzeko, euren hizkuntza ‘liburu hizkuntza’ edo ‘hizkuntza artifiziala’ definitzera daramatza (‘galego de libro’, ‘book irish’), ‘hiztun natiboek’ erabiltzen ez dituzten formak eta hitzak erabiltzen baitituzte. Berriro ere, ‘jatorrizko hiztunaren’ idealizazioa genuke hemen (Walsh & O’Rourke, 2014), hiztunen artean prestigio gehien duen hizkera itxia baita, eta, irlandeararen kasuan, aldaera geografikoen ondoriozko hizkera azentuduna.

Jarrera hauen inguruko hausnarketa egitea garrantzitsua da, hiztunek euren hizkerarekiko duten iritzian zuzenean eragiten baitute aldaera geografikoa eta erregistro informala ez izateak.

Kontu honek irakaskuntza metodoak apur bat zalantzan jartzera garamatza, denak ez badira ere, ‘hiztun berri’ askok hezkuntzari esker ikasi dute delako hizkuntza, eta hainbeste ‘hiztun berrik’ “gabezia” hau sumatzen badu, nahikoa al da irakasten dena? Asetzen ez den behar baten aurrean al gaude? Estandarrera soilik mugatu beharko al litzateke hizkuntzen irakaskuntza? Ala hiztunak testuinguru informalean ere eroso sentiaraziko dituzten baliabideak ere irakatsi beharko lirateke? Erregistro informala eta aldera geografikoa izango balituzte, ‘hiztun berri’ bezala ikusiak izango al lirateke gizartean? Euren burua ‘hiztun berri’ definitzen jarraituko al lukete? Planteamendu hauek egitea garrantzizkoa da, geroz

---

**Gazte batzuentzat euskaraz hitz egitea eta euskalduna izatea ez da berdina, hots, euskaraz hitz egiteak ez du zertan automatikoki euskaldun egiten. Horretaz gain, gazteen iritziz, hortaz, hizkuntza hitz egite hutsak ere ez du hiztun legitimoa izatea ziurtatzen, ez da horretarako nahikoa.**

**Gutxi badira ere,  
badira irlandera  
bigarren  
hizkuntza duten  
zenbait hiztun  
euren burua  
adjektiborik  
gabeko hiztuntzat  
dutenak. Hauek  
haurtzaindegitik  
irlandera ikasi  
duten hiztunak  
dira gehienbat,  
hots, irlandera  
bigarren  
hizkuntza bezala  
oso gaztetan  
ikasi zutenak.**

eta gehiago, ‘hiztun berrien’ kopurua handituz baitoa, eta beraz, horrela sentituko den hiztun kopurua ere bai.

‘Hiztun berriek’ egindako adierazpenetatik hainbat ondorio atera daitezke. Batetik, hezkuntza mailan, esan bezala, erregistro informala eta tokian tokiko hizkuntza irakasteko (eta ikasteko) beharra dago. Bestetik, hizkuntzak eskolatik kanpo ere ikasten direnez, eskolatik kanpo erabilera eremuak sortzeko behar bat dago, erregistro formaletik aldentuz, erregistro informala eta aldaera geografikoa protagonista diren erabilera eremuak, hain zuzen. Honetaz gain, ‘hiztun berriek’ aldaera geografikoa eta erregistro informala ikasteko (eta erabiltzeko) beharra duten arren, hauek edukitzea ez da ez edukitzea baino hobea. Hau da, aldaera geografikoa izan ala ez izan, erregistro informala izan ala ez, berdina izan beharko litzateke prestigio mailan, eta ez litzateke bat goretsi eta bestea gaitzetsi behar, hiztun guztien hizkera prestigioatu baizik, desprestigiatze honek kostu soziolinguistiko handia baitakar.

Antzekotasunekin jarraituz, azken profilean (adjektiborik gabeko hiztunen profilean, alegia) hiztunek euren burua adjektiborik gabe definitzeko arrazoiak errepikatu egin dira berriro ere, baina irlandiararen eta euskararen kasuan soilik.

Talde honen barnean irlandera eta euskara ikasi duten hiztunak soilik daude. Euskararen kasuan, nazioaren ideiak, (“euskaldun” terminoa lurraldearekin lotzeak) eta euskararen gaitasun eta erabilera mailak (euskaldunetan murgildurik egoteak eta euskalkia izateak) daramatza hiztunak euren burua hemen kokatzera. Beraz, eremu euskaldunetako hiztunak dira hauek, euskalkia ere ikasi dutenak. Ondorioz, talde hau bera egoteak iradokitzen du, euskara ikasi dutenen artean behintzat, dikotomia ez dagoela “euskaldun berri” eta “euskaldun zahar” definitziorien artean, “euskaldun” eta “euskaldun berri” artean baizik.

Irlandiararen hiztunei heltzen badiegu, berriz, orokorrean, irlandera haurtzaindegian ikasi duten hiztunak dira, hots, hizkuntzaren jabeakuntza goiztiarra izan dutenak, horregatik, ez dira hizkuntza barneratu eta ikasi izanaz oroitzen. Gainera, euskararen kasuan bezalaxe, irlandera egunerokotasunean erabiltzen duten hiztunak dira, bai familiarekin eta baita lagunekin erabiltzen dutenak.

Topatutako antzekotasunak alde batera utziz, hiru hizkuntzen arteko ezberdintasunak ere aurkitu dira. Izan ere, ‘Ez naiz hiztun zaharra’ sailkatutako profilean euskara ikasi duten ‘hiztun berriak’ soilik aurki ditzakegu. Ez da irlandera eta galiziera bigarren hizkuntza duten hiztunen

artean halakorik sentitzen duela aitortu duenik topatu. Beraz, euskara ikasten dutenen artean bakarrik aurkitzen da hiztun zaharrak ez direla zehazteko, argi uzteko, behar hori. Zergatik ote? Euren etxeko hizkuntza gaztelania izateak daramatza auto-perzeptzio honetara. Honen atzean, gaur egun indar handia (handiegia, akaso?) duen *Ama Hizkuntzaren Ideologia* dugu, non ama hizkuntza euskara dituztenak idealizatzeraz, mitifikatzeraz daramatzen.

Bestetik, galizieraren kasuan ere ezberdintasun bat topatu da, hirugarren profileen (adjektiborik gabeko hiztunena, alegia) ez baita galiziera ikasi duen hiztunik topatu. Hala ere, aztertu direnen artean hau ez gertatzeak ez du esan nahi bere burua hemen kokatzen duen galiziar hiztunik ez dagoela galizieraren komunitate osoan.

Hirugarren ezberdintasuna litzateke garrantzitsuenetarikoa, galiziera ikasi duten hiztunen artean beste bi hizkuntza gutxituetan topatzen ez den profil garrantzitsu bat baitago: galiziera ikasi, eta euren ama hizkuntza baztertu dutenak, beti edo ia beti galiziera erabiliz. Hauek, gutxi badira ere, garrantzitsuak dira galizierarentzat eta honen biziraupenerako, hizkuntza egunerokotasunean erabiltzen duen gutxiengo aktibo bat baita (O'Rourke & Ramallo, 2014). Baliteke tipologikoki galiziera eta gaztelania antzekoak diren hizkuntzak direnez, aldaketa hau (*language displacement*) egitea errazago izatea hiztun hauentzat, irlanderaren eta euskararen hiztunentzat baino.

Ezberdintasunekin amaitzeko, aipagarria da irlanderaren 'jatorrizko hiztunek' 'hiztun berriekiko' duten jarrera, izan ere, natiboen %27k bakarrik jotzen ditu 'hiztun berriak' irlanderaren hiztuntzat, euskararen eta galizieraren kasuan ikusten ez den zerbait. Honek iradoki dezake irlanderaren hiztunen komunitatean haustura bat dagoela (jarrera hauen ondorioz, beharbada).

Laburbilduz, euskara, irlandera eta galiziera ikasi dutenen hizkuntza-identitatean zenbait antzekotasun eta ezberdintasun aurkitu dira. Antzekotasunetan euren burua 'hiztun berri' definitzeko arrazoiak genituzke batetik: ama hizkuntzaren ideologia eta aldaera geografikoa eta erregistro informala ez edukitzea. Gainera, euren burua adjektiborik gabeko hiztuntzat jotzeko arrazoi izan dira euskararen eta irlanderaren kasuan jabekuntza goiztiarra eta hizkuntzaren eguneroko erabilera.

Bestetik, zenbait ezberdintasun ere antzeman dira, 'ez naiz hiztun zaharra' profileen euskal hiztunak soilik baitaude. Gainera, 'Ez hiztun berri, ez zahar, hiztuna besterik gabe' profileen ez dugu galizieraren hiztu-

nik, baina bigarren profilean (*'hiztun berria naiz'*) beste bi hizkuntzetan topatu ez den hiztun tipologia bat dugu: lehen hizkuntza alde batera utzi, erabiltzeari utzi, eta beti edo ia beti galiziera erabiltzen duten hiztunak. Amaitzeko, irlandiararen komunitatea beharbada hautsirik dagoela ikusi da.

Behin antzekotasunak eta ezberdintasunak azalduta, kanpo faktore bat ere aurkitu da, hiztunen auto pertzeptzioan zuzenean eragin duena: 'jatorrizko hiztunen' jarrera. Azpimarragarria da hau oso, izan ere, jatorrizko hiztun askok mespretsuzko hitzak erabiltzen dituzte 'hiztun berri' adierazteko, eta denboraren poderioz, gizartean zabaldu eta normalizatu egin dira, hiztegiko sarrera izatera ere iritsiz (*euskaldunberri* definizioaren kasua, esaterako).

Lan honetan bertan ikusi da 'jatorrizko hiztunek' duten jarreraz eta honek duen izaera baztertzailaz oso kontziente direla 'hiztun berriak', gehienetan ikasi berri duten hizkuntzarekiko duten auto-konfiantza urratuz, eta erabiltzen duten hizkeraz lotsatzera eramanez. Kasu hauek, amaiera bera eduki dezakete: euren hizkeraz lotsaturik, erabiltzeari uztea. 'Hiztun berriekiko' jarrera hau linguistikoki kaltegarria da oso (batez ere hizkuntza gutxituez ari garenean), hiztun berri kopurua handitzeak ez baitu askorako balio ikasitakoa erabiltzeko aukerarik ematen ez bazaie.

Begibistakoa da, gizarte mailan, orokorrean, badakigula 'hiztun berri' izaten noiz hasten den, baina ez noiz uzten den izateari, eta nekez edukiko ditugu aurreiritzi gabeko hiztunak (eta ondorioz, hizkuntzak) gaia lantzen ez badugu. ●

## **OHARRA**

1. Ingelesko 'accent' litzatekeen hori adierazteko 'kutsu' hitza aukeratu da ez garelako kontu prosodiko batez ari, jatorrizko hiztunek jaiotzez duten hitz egiteko ahoskera moduko batez baizik.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Campbell, L. (2011). "La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?". *Koldo Mitxelena Katedraren Biltzarra*. 23-40.
- Central Statistics Office (2013). <[http://www.cso.ie/en/media/csoie/census/documents/census2011profile9/Profile\\_9\\_What\\_we\\_know\\_full\\_doc\\_for\\_web.pdf](http://www.cso.ie/en/media/csoie/census/documents/census2011profile9/Profile_9_What_we_know_full_doc_for_web.pdf)> (2016-04-6)
- Eusko Jaurlaritzaren (2002) *V. inkesta soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- Ethnologue*. <<https://www.ethnologue.com/>> (2016-04-5)

- Eusko Jaurlaritzak. (2010). *Hezkuntzari buruzko datuak* <[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dia4/eu\\_2025/adjuntos/09\\_10/folleto\\_estadistica\\_2009\\_2010\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dia4/eu_2025/adjuntos/09_10/folleto_estadistica_2009_2010_e.pdf)>
- Hornsby, M. (2015). "The 'new' and 'traditional' speaker dichotomy: bridging the gap". *International Journal of the Sociology of Language*. 213. 107-125.
- Instituto Galego de Estatística (2008). <[http://www.ige.eu/estatico/estat.jsp?ruta=html/gl/ecv/ECV\\_ResumoResultados\\_galego.html](http://www.ige.eu/estatico/estat.jsp?ruta=html/gl/ecv/ECV_ResumoResultados_galego.html)> (2016-04-20).
- Jaffe, A. (2015). "Defining the new speaker: theoretical perspectives and learner trajectories". *International Journal of the Sociology of Language*. 231. 21-44.
- McLeod, W., O'Rourke, B., & Dunmore, S. (2014). "New speakers of gaelic in Edinburgh and Glasgow". *Soillse*. 1-55.
- O'Rourke, B., Pujolar, J., & Ramallo, F. (2015). "New speakers of minority languages: the challenging opportunity-Foreword". *International Journal of the Sociology of Language*. 231. 1-20.
- O'Rourke, B., Ramallo, F. (2015). "Neofalantes as an active minority: understanding language practices and motivations for change amongst new speakers of Galician". *International Journal of the Sociology of Language*. 231. 147-165.
- O'Rourke, B., Ramallo, F. (2010). "Los nuevos hablantes de las lenguas minoritarias: una comparación entre Irlanda y Galicia". *IX Congreso Internacional de Lingüística General*. 1684-1700.
- O'Rourke, B., Ramallo, F. (2011). "The native-non-native dichotomy in minority language contexts". *Language Problems & Language Planning*. 35:2. 139-159.
- O'Rourke, B., & Ramallo, F. (2014). "Perfiles de neohablantes de gallego". *Fundación para la Universitat Oberta de Catalunya*. 16. 98-105.
- Ortega, A., Amorrotu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J. & Uranga, B. (2013). "Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: 'nolako euskalduna naiz?'". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*. 87-88. 151-170.
- Walsh, J., & O'Rourke, B. (2014). "Becoming a new speaker of Irish: linguistic *mudes* throughout the life cycle". *Fundación para la Universitat Oberta de Catalunya*. 16. 67-73.
- Walsh, J., & O'Rourke, B. (2015). "New speakers of Irish: shifting boundaries across time and space". *International Journal of the Sociology of Language*. 231. 63-83.
- Zendoia, J. M. (2000). "Hizkuntza gutxituak eta ekonomia: euskararen kasua". UPV/EHUko doktore tesia. <[http://www.ehu.es/jm.zendoia/Ikerketa/HIZKUNTZA\\_GUTXITUAKEta\\_EKONOMIA.pdf](http://www.ehu.es/jm.zendoia/Ikerketa/HIZKUNTZA_GUTXITUAKEta_EKONOMIA.pdf)> (2016-05-05)